

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Etxez-etxeko laguntza-zerbitzua arautzeko udal-araudiaren aldaketa behin betiko onestea

Udalbatzak, 2025eko urriaren 3ko bilkuran, etxez-etxeko laguntza-zerbitzuaren udal araudiari hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Erabaki hori jendaurrean egon den bitartean ez zen ordenantzaren aurkako alegaziorik aurkeztu. Hori dela-eta, erabaki hori behin betiko bihurtu da, halaxe xedatzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49 c) artikuluan.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezartzen duenari jarraituz, oso-osorik ematen da argitara onartutako ordenantza, eta argitaratzen denetik sartuko da indarrean.

Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Goiko Epategiko Administrazioarekiko Auzietako Atalaren aurrean. Horretarako 2 hilabeteko epea egongo da iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua araberak.

Hori guztia, egokituz jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izateari kalterik egin gabe.

ETXERAKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN UDAL ARAUDIA

LEHENENGOTITULUA

1. artikulua. Xedea

Audi honen helburua da etxerako laguntza zerbitzua arautzea Zigoitiko udalerrian.

2. artikulua. Ezarpen-eremua

Audi honetan zehazten den zerbitzua honako udal mugarte honetan emango da.

3. artikulua. Etxerako laguntza zerbitzuaren definizioa

Etxerako laguntza zerbitzua laguntza- eta prebentzio-izaerako zerbitzua da, erabiltzaileei beren etxean geratzen laguntzeko, bertan moldatzeko eta komunitate-inguruan integratzeko laguntza emanez, betiere isolamendu-egoerak saihestuta.

4. artikulua. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren helburuak

Zerbitzu honen helburuak honako hauek izango dira:

— Norberaren autonomia mantentzea edo hobetzea, erabiltzaileen makaltzea prebenitzea eta haien autonomia-galera konpentsatzea, laguntza partziala edo osoa emanez, beren zaintza pertsonalerako premiazkoak diren eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak edota eguneroko bizitzako jardura instrumentalak egin ditzaten.

— Bideragarria denean, erabiltzaileei beren etxean ahalik eta denbora gehien geratzeko aukera ematea, bizi-kalitate onargarria izan dezan, ostatu-zerbitzu edo egoitza batean sartzea atzeratu edo saihesteko.

— Erabiltzaileen segurtasun-sentimendua indartzea.

- Erabiltzaileari laguntza emateko sare sozio-familiarra osatzen duten zaintzaileei laguntza ematea eta arreta emateko lana partzialki liberatzeko aukera ematea, beren garapen pertsonal, profesional zein sozialerako baldintza egokiak izan ditzaten.
- Erabiltzaileari normalean arreta ematen dion pertsona zaintzaile nagusia aldizka ordezkatzeari, hura aldi baterako izan ezean.
- Beste zerbitzu batzuk erabiltzeko premia eskatuko luketen beharrianak antzematea.
- Erabiltzaileak komunitate-ingurunean integratzen laguntzea, isolamendu- edota bazterketa-egoerak saihesteko.
- Adingabekoen zaintza osatzea, gurasoek edo tutoreek zaintza egokia ezin dietenean eman.
- Hainbat arrazoi psiko-fisiko-sozialen ondorioz krisialdi-egoeran dauden familien bizikidetzagiroa hobetzea, eta arrazoi horiek sortutako arriskuak prebenitzea.

BIGARRENTITULUA. ETXERAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

I. KAPITULUA. ZERBITZUAN SARTZEN DIREN ETA KANPOAN GERATZEN DIREN LAGUNTZAK ETA HORIEN EZAUGARRIAK

5. artikulua. Sartzen diren eta kanpoan geratzen diren laguntzak

5.1. Honako laguntza hauek zerbitzu barruan eskainiko dira:

I. Informazioa: erabiltzaileei beren eskubideen eta zerbitzuaren gaineko ezagutza egokia eta nahikoa izan dezaten behar bezala eta behar den momentuan informatzea.

II. Jarraipenaren balorazioa: Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldizkako ebaluazioak egitea, sakontasun handiago edo txikiagoarekin.

III. Etxeko Laguntza Zerbitzua: erabiltzaileek laguntza partziala edo osoa jasotzeko zerbitzua, eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egin ditzaten, bereziki elikadurarekin, arroparekin zein bizi diren etxebizitzako instalazioen mantentze-lanen garbiketarekin lotutako lanak, haien antolaketa errazteko, eta dagokionean, lan horiek egiteko behar diren gaitasunetan trebatzeko.

a) Elikadurarekin lotutakoak:

— Otorduak prestatzen laguntzea / otorduak planifikatzen eta prestatzen laguntzea, erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea barne.

— Elikagaiak erostea.

— Erabilitako tresnak garbitzea eta lehortzea.

b) Arroparekin lotutakoak:

— Etxean arropa garbitzen laguntzea / Arropa etxean garbitzea.

— Arropa eskegitzea.

— Arropa atontzea.

— Arropa antolatzea eta gordetzea.

— Arropa etxean lisatzea eta tolestea.

— Arropa erosten laguntzea / arropa erostea.

— Erabilitako elementu guztiak prestatzea eta gordetzea.

c) Etxebizitzako instalazioen mantentze-lanekin lotuta:

— Etxea txukun jartzea.

— Azalerak produktu egokiekin garbitzea.

— Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea.

- Hautsa kentzea.
- Zoruak garbitzea eta aspiragailua pasatzea.
- Gortinak eta leihoak irekitzea, aireztatzea.
- Bainu-gela garbitzea.
- Sukaldea garbitzea.
- Leihoetako kristalak garbitzea.
- Zaborra kontrolatzea eta jaistea.
- Ohea egin, oheko arropa aldatu eta zikina kentzea.
- Jabeen erkidegoko espazioak garbitzea.

IV. Arreta pertsonala: erabiltzaileek laguntza partziala edo osoa jasotzeko zerbitzua, egunero bizitzan beharrezkoak diren oinarritzko jarduerak zein beren ingurunearekin lotuko dituzten jarduera instrumentalak egiteko; hori horrela, familia- eta komunitate-ingurunean sartzeko aukera emango zaie. Era berean, eta hala badagokio, horiek egin ahal izateko premiazko gaitasunetan trebatuko dituzte.

— Garbitasun eta higiene pertsonala, norbere eta oheko arropa aldatzea barne (baita laguntza teknikoak ere, horiek izanez gero, azazkalak zaintzea, bizarra moztea, ilea garbitzea, azala hidratatzea, ahoko higiena eta arropa aldatzea).

- Janzten eta eranzten laguntzea.
- Eguneroko arropa prestatzea.
- Jaten laguntza ematea.
- Edaten laguntza ematea.
- Janaria berotzea.
- Norbere garbitasun eta higienerako erabilitako objektuak garbitzea eta jasotzea, bai eta jaten zein edaten laguntza ematekoak ere.

a) Inguruan mugitu eta moldatzearekin lotutako jarduerak:

- Jaikitze, oheratzeko eta eserlektutik altxatzeko laguntza baliabide teknikoak erabiliz, halakorik izanez gero.
- Etxe barruan noraezean dabiltzanean laguntzea, baliabide teknikoak erabiliz halakorik izanez gero (bainugelara laguntzea, gela batetik bestera mugitzen laguntzea).

b) Osasuna mantentzearekin lotutako jarduerak:

- Medikuek agindutako aho bidezko medikazioa erosi, hartzen dela egiaztatu eta horren jarraipena egitea.

Orokorrean, aurreko jarduera guztiak, elementuak prestatzea, edota aurreko jardueren ondoriozko jardura guztiak.

V. Gizarte-laguntza: honen bidez, erabiltzaileak, profesional kualifikatu baten laguntzari esker, laguntza-harreman batean parte hartzen du, erabiltzailea modu autonomoan hobeto moldatze eta gizarteratze aldera.

- Izaera pertsonaleko kudeaketetan laguntzea, familiaren babes nahikoa ez dagoenean.
- Medikuen hitzorduak kontrolatzea eta horien jarraipena egitea, familiaren babes nahikoa ez dagoenean.
- Laguntza ematea etxetik lekualdatzean, baina betiere etxe inguruan (garraioa, eguneko zentroak, osasun-zentroak, komunitate-ekipamenduak, etab.).

VI. Beste hainbat jarduera osagarri edo ezohiko:

Egoera berezietan, eta izaera mugatuarekin, beste hainbat jarduera eman ahalko dira, baldin eta zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbestekotzat hartzen badira:

- Zaintzaileen atsedenaldia.
- Paseoak.
- Zerbitzu normalizatua ezarri aurretik higiene-arazo larriak dituzten etxebizitzetan garbiketa orokorrak egitea.
- Egoera berezietan, beste hainbat jarduera eman ahalko dira, baldin eta zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbestekotzat jotzen badira.

5.2. Zerbitzu honetan honako jarduera hauek baztertzen dira:

Etxebizitzan bertan bizi diren eta zerbitzuaren onuradunak ez diren pertsonen arreta pertsonala ematea.

- Etxeko lanak egiteko laguntza ematea, baldin eta etxe horretan lan horiek egiteko gaitasuna duten pertsonak bizi badira.
- Osasun-izaerako jarduerak gauzatzea, baldin eta horiek egiteko langileek berariazko prestakuntza behar baldin badute (injekzioak jartzea, zundak erabiltzea, ultzeren eta eskaren tratamendua egitea nahiz medikazioa ematea, berariazko ezagutzak eta antzeko beste ezagutza batzuk eskatzen dituztenak).
- Etxean konponketa garrantzitsuak egitea (margotzea, papereztatzea...).
- Lehenengo atalean eta seigarrenean zehaztu gabeko garbiketak).
- Zerbitzu teknikoek egindako txostenean aurreikusi gabeko jarduera guztiak, ezta beste administrazio batzuen eskumenekoak direnak ere.

6. artikulua. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak

Etxerako Laguntza Zerbitzu orokorra emango da onuraduna bizi den etxebizitzan, Zigoitiko udal barrutian.

Onuraduna senideen artean txandakatuz gero, zerbitzua etxebizitza batean baino gehiagotan eman ahalko da, Araudi honen 8.1 artikuluan aurreikusitako baldintzekin bat.

I. Arreta-egunak:

- Orokorrean, zerbitzua astelehenetik ostiralera arte emango da, medikuaren aginduaren arabera.
- Balorazio baten arabera, zerbitzua asteburuetan eta jaiegunetan eman ahalko da.
- Jaiegunak izango dira Eusko Jaurlaritzak ofizialki hala onartuak dituenak.

II. Zerbitzuaren intentsitatea:

Zerbitzua emateko aldi baterako mugak erabiltzaileen premien bananako ebaluazioaren arabera ezarriko dira.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren intentsitatea arreta-programa indibidualaren arabera izango da, eta hileko ordu-kopuruan zehaztuko da, mendekotasun-mailaren arabera:

- I. gradua: hilean 20 ordutik 37 ordura.
- II. gradua: hilean 38 ordutik 64 ordura.
- III. gradua: Hilean 65 ordutik 94 ordura.

Gutxieneko prestazioa astean 30 minutukoa izango da.

III. Arreta-ordutegia:

Zerbitzuaren ordutegi orokorra malgua da eta goizeko 07:30etik gaueko 21:30era emango da.

Batzuetan, zerbitzua emateko ordutegia zabalduko da ezarritako orduetatik kanpo, medikuaren balorazioarekin bat.

— Laguntza pertsonala ematean, ordutegia eskatzailearen ordutegi-ohiturak eta -premiak kontuan izanik ezarriko da.

— Etxe- eta gizarte-laguntza emateko zerbitzuei dagokienez, ordutegiak zerbitzua horiek eskaintzen dituzten langileen ordutegien arabera ezarriko dira.

II KAPITULUA. ERABILTZAILEAK

7. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea

Zerbitzu honen erabiltzaileak autonomia-galera dutenak edo baztertzeko arrisku-egoeran daudenak, orokorrean, beren profilak bat egin beharko du eguneroko bizitzan oinarritzko jarduerak egiteko aldi baterako edo etengabeko Laguntza Zerbitzua behar duten pertsonekin, beren ohiko etxebizitzan bizitzen jarraitu dezaten.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan, Etixerako Laguntza Zerbitzua eskubide subjektibo gisa aintzat hartzen da mendekotasun-egoeran dauden eta mendekotasuna izateko arriskua duten pertsonentzat Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015ko Dekretuak ezartzen duenaren arabera (MBB Mendekotasunaren Balorazio Baremoko puntuazioa 23 eta 24 puntu artekoa).

Etixerako Laguntza Zerbitzuaren hartzaileak honako pertsonak edota familia-taldeak izan daitezke:

— Autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten pertsonak, eguneroko bizitzako jarduera oinarritzkoak edota instrumentalak egiteko laguntza behar dutenak.

— Autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten 65 urte baino gehiagoko pertsonak, eguneroko bizitzako jarduera oinarritzkoak edota instrumentalak egiteko laguntza behar dutenak.

— Familiarengandik behar duten zaintza eta arreta jasotzen ez dituzten adingabeak.

— Zama gehiegi, harreman-gatazka, gizarte-egoera ezegonkorrak edota gaixotasun fisiokoaren edota psikikoaren ondoriozko arazoak dituzten familia-taldeak edo pertsonak, eguneroko bizitzako edozer jarduera egiteko babesa nahiz zaintza eta laguntza partziala edo osoa behar dutenak.

— Gaixotasun terminal bat duten pertsonak, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beste pertsona baten laguntza nahitaez behar dutenak.

— Zerbitzu honen laguntza jaso dezaketen pertsona edota egoera guztiak, medikuaren balorazioaren arabera.

8. artikulua. Zerbitzua erabiltzeko baldintzak

Aurrerago adierazitako egoeraren bat izateaz gain, eskatzaileak zerbitzua erabiltzeko honako baldintzak bete beharko ditu:

8.1. Administrazio-baldintzak:

Eskaera egiten den datan, Zigoitiko udal-barrutian erroldatuta egotea, eta bertan erroldatuta jarraitzea.

Baldintza horretatik salbuetsita geratuko da familia-txandakatzean dagoena.

8.2. Premiaren baldintzak:

- a) Laguntza eguneroko bizitzako jarduera oinarrizkoak edota instrumentalak egiteko eskatzea.
- b) Helbidean bizitzea, helbide hori norberarena izan edo zaintzaile nagusia den senide batena izan.
- c) Erabiltzailea bertan egotea eragozten edo larri zailtzen ez duen helbidea izatea, bai erabiltzailearentzat, bai etxeko laguntzaileentzat arriskurik ez dakarrena.
- d) Beharrezkoa izanez gero, Zerbitzuko langilerekin batera, laguntza nahikoa izatea, etxebizitzan baldintza egokietan egoteko.
- e) Erakunde sanitarioetan edo soziosanitarioetan etengabeko laguntza eskatzen duen osasun-egoera ez izatea.
- f) Dagokion tratamenduari uko ez egitea, gaixotasun infekziosoa eta kutsakorra edo gaixotasun mentala edukiz gero.
- g) Jarrera-nahasmendurik ez izatea edo Zerbitzuko langileari arriskua ekarri dakiekeen jokabiderik ez izatea.

9. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikulua ezartzen duenaz gain, Etxerako Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

- Banakako arreta programan ezarritakoaren edukira eta intentsitatera egokitutako zerbitzua jasotzeko eskubidea, menpekotasun aitortua duten pertsonen kasuan; eta Arreta Plan Pertsonalizatuan ezarritako zerbitzua jasotzeko eskubidea, menpekotasun aitortua ez duten pertsonen kasuan.
- Jardueren programazioan parte hartzea.
- Jarduera-orriaren kopia bat izatea, zerbitzuaosatzen duten jarduerak eta ordutegi-antolaketa zehaztuta (zerbitzuaren maiztasuna eta esku-hartze bakoitzean erabilitako denbora).
- Zerbitzuan aldaketa bat sortu dezaketen egoeren berri ematea, bai eta zerbitzu bera bertan behera utzi edo amaitu dezaketenak.
- Zerbitzua EAEko edozer hizkuntza ofizialetan jasotzea.

10. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gain, Etxerako Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

- Zerbitzurako langilearen duintasun-eskubidea erabat errespetatzea.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuen erreferentziatzko gizarte-langileari jakinaraztea, gutxienez 24 orduko epearen barruan, egiaztatutako arazo larrietan salbu, zerbitzuaren prestazioa aldi batean bertan behera uzteko gertakarien edo egoeren arrazoiak.
- Zerbitzua ematen duen entitateari eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen erreferentziatzko gizarte-langileari jakinaraztea zerbitzua ematean hautematen diren balizko arazoen berri.
- Zerbitzuaren prezio osoa edo hobariduna abonatzea, gaitasun ekonomikoa dela eta prezio publikoa ordaintzean salbuespenen bat ezarri daitekeen kasuetan salbu, etxerako laguntza zerbitzuan ezarri daitezkeen prezio publikoen udal araudian aurreikusitakoaren arabera.
- Zerbitzua ematen dieten profesionalei lana erraztea, laguntzea eta behar bezala nahiz begirunez tratatzea.

— Zerbitzua ematean eritasun infekzio-kutsakorrak gertatuz gero oinarrizko gizarte-zerbitzuen erreferentziako langileei jakinaraztea, etxeko Laguntza Zerbitzuaren langileek beharrezko babes-neurriak har ditzaten.

— Etxean geratzea Etxerako Laguntza Zerbitzuaren langilea zerbitzua ematen ari den denbora, berariazko baimena eta preskripzio tekniko eman ezik.

— Etxerako Laguntza Zerbitzuko langilea etxean eta maila pertsonalean dagozkien zereginak egiteko behar dituzten tresnak eta materialak eskuratzea.

— Gizarte-zerbitzuei behar besteko denborarekin informatzea beren egoera sozioekonomikoan edozer aldaketa garrantzitsu gertatuz gero, dagokion ordenantza fiskalean ezarritako baldintzen arabera.

— Medikazioa zaindu beharreko zerbitzuetan: une oro aipatu zerbitzua ematen duen profesionalari zaindu behar den medikazioaren adierazpen argiak eta eguneratuak ematea.

Erabiltzaileak komunikazioak, informazioak eta gainerako eskakizunak berariaz zuzendu beharko ditu, dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuaren oinarrizko profesionalek artikulua honetan ezarritako obligazioak bete ditzaten.

Betebehar horietakoren bat betetzen ez badu, zerbitzua eten edo iraungi egingo da, araubide honetan araututako prozedurarekin bat etorritik.

III. KAPITULUA. ZERBITZUA JASOTZEKO PROZEDURA

1. ATALA. Eskatzaileen zerrendan sartzea

11. artikulua. Eskatzaileen zerrenda

Zerbitzua esleitzeko lehentasuna zerbitzuaren eskatzaile-zerrenda bitartez antolatuko da, eta sartzeko baremoa aplikatetik lortutako puntuazioari jarraituko zaio (I. eranskina).

Aurreko paragrafoan aurreikusitako eskatzaile-zerrendan sartzen diren pertsonak espedientea berrikustea eska dezakete, behar bezala egiaztatzen badute euren egoeran izandako gorabeherak egin zaien balorazioa alda dezaketela.

12. artikulua. Zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzeko eskabidea

Araudi honetan araututako Etxerako Laguntza Zerbitzuaren eskatzaile-zerrendan sartzeko, interesdunak inprimaki normalizatu baten bidez eskatu behar dio eskumena duen organoari. Inprimakiak eskatzailearen sinadura eramango du eta Udalak xede horretarako prestatutik dituen edozein erregistrotan aurkeztuko da, edo erregistroetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako eran.

Interesdunak eskaerari uko egin diezaioke prozesuaren edozein unetan, idatziz hala eskatuta. Horren ondorioz, espedientea artxibatu egingo da.

Halaber, gizarte-langileak txostena egin dezake espedientea artxibatzeko xedez, eskatzaileak edo haren ordezkariak berariaz uko egiten diola adierazten duen idazkirik bada.

13. artikulua. Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak

Eskatutako zerbitzuak etxeko lanetan laguntzea baldin badakar edo adingabeak beren kargura dituzten familien arretara zuzentzen bada, eskatzailearen ezkontidearen edo izatezko bikotearen nahiz etxean bizi diren gainerakoen dokumentazioa ere aurkeztu behar da:

Eskabideekin batera honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

— NANaren fotokopia, edo edozein identifikazio-agiri baliokidea.

— Familia-liburua, elkarbizitza-unitatean 18 urtez azpikorik bada.

— Mendekotasunaren eta/edo gutxiagotasunaren balorazioa, hala badagokio, balorazioa beste autonomia-erkidego batean egin izan bada.

— Mediku-txostena, osasun-arazoak izanik mendekotasuna eta/edo desgaitasunaren balorazioa eskatzea ez dagokien pertsonen kasuan.

— Artatu beharrekoa pertsona adingabea bada edo legez edo izatez ezindua bada, ordezkari-tzaren egiaztagiria (adingabeak: familia-liburua, guraso eta seme-alaben arteko neurriak jasotzen dituen agiria; ezinduak: haren tutore izendatzen duen epaia edo izatezko zaintzaile-agiria, ereduaren arabera).

— Egoera ekonomikoari buruzko datuak:

a) Eskatera egin aurreko lau urteetako ondasun higigarrien eta higiezinaren zinpeko aitortpena.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako azken aitortpenaren fotokopia edo, halakorik ezean, aitortpena egitera beharturik ez egotearen Ogasuneko ziurtagiria (azken hori ez da beharko aitortpena egindako azken ekitaldian Araba izan bada zergadun).

c) Edozein kontzeptutan egun dituen diru-sarreraren egiaztagiria: pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak (izan publikoak, pribatuak nahiz atzerrikoak), nominak, enpresa-jardueren etekinak, etab.

d) Kapital higiezinaren etekinengatik izandako diru-sarreraren egiaztagiria, halakorik izanez gero.

e) Banketxetako kontu-egoera eguneratu guztien egiaztagiria, eta kapital higigarrien etekinak.

f) Arabako lurraldez kanpo jabetzan diren ondasunen katastro-balioaren eta titulartasunaren egiaztagiria.

g) Ezarritako prezioaren hileko ekarpena ordaintzeko banku-erakundea eta kontu korrante zenbakia.

— Gizarte-zerbitzuek interesgarritzat jotzen duten beste edozein agiri.

Eskatzaileak ez badu nahi bere egoera baloratzerik edo ez badu modu frogagarrian egiaztatzen, ulertuko da uko egiten diola bere egoera ekonomikoa aintzat har dezaten, eta beraz, zerbitzua ordaintzeko ezarritako gehieneko tarifa ordaindu beharko du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 8.3 artikuluari jarraituz, herritarrek ez dute aurreko agiri horietakorik aurkeztu beharrik izango lehendik ere administrazioak bere esku baditu. Horretarako, ordea, interesdunek eurek adierazi behar dute noiz eta zer organori aurkeztu zioten dena delako dokumentua. Udal edo foru gizarte-zerbitzuek ezin balituzte eskuratu dokumentu horiek, interesdunari berriz ekartzeko eska diezaioke.

Eskaerarekin batera aurkezten den dokumentazioa osatugabea bada edo gaizki badago, eskatzaileari eskatuko zaio atzemandako okerrak zuzentzeko edo osatzeko beharrezko dokumentazioa aurkez dezan, 10 eguneko epean. Hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

Eskatzaileak eta, hala badagokio, elkarbizitza-unitateko gainerako kideek, baimena emango dio Udalari eta Arabako Foru Aldundiari datuak egiaztatzeko nahiz biltzeko beharrezko kudeaketak egin ditzaten. Datu horiek, eskatzaileak araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen ala ez egiaztatzeko, eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko betekizunak eta baliabide ekonomikoak egiaztatzeko baino ezingo dira erabili.

Datu faltsuak emateak eta datuak ezkutatzek eskatzailea kanpo geratzea ekarriko du. Horrez gain, beste ardura batzuen erantzule egitea ere ekar dezake.

14. artikulua. Izapidetzea

Erabiltzaileen beharren ebaluazioa eta gizarte-txostena nahiz proposamena Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean ezarritako zehaztapenei jarraituz egingo dira.

14.1. PREMIEN EBALUAZIOA.

— Eskatzailearen etxebizitzari (etxebizitza ibiltariari, hala badagokio) dagozkion udal gizarte-zerbitzuetako gizarte laneko teknikariek izapidetu, baloratu eta ebaluatuko dituzte eskatzailearen premiak.

— Udal gizarte-zerbitzuetako teknikariek aurkeztu izan den dokumentazioa aztertu eta honako alderdi hauek baloratzeko behar diren gestio eta jarduerak burutuko dituzte:

a) Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko laguntza behar izatea. Oinarritzko jarduera horien artean daude bere burua zaintzea, jaiki eta oheratzea, janzea, ibiltzea, elikatzea, garbitzea eta esfinterrak kontrolatzea.

b) Eguneroko bizitzan tresnak erabiliz egiten diren jarduerak egiteko laguntza behar izatea. Esate baterako, elikagaiak eskuratzea eta prestatzea, etxebizitza eta sukaldeko tresnak garbitzea, arropa garbitzea, erosketak egitea, dirua erabiltzea, botikak kontrolatzea, eta etxeko nahiz etxetik kanpoko joan-etorriak egitea.

c) Familia eta gizarte mailako egoera. Eskatzaileak, bizi den pertsonekin nahiz gizarteko ingurunearekin duen harremana baloratzea, eta baita familiako nahiz gizarte-sareak eskatzailearen beharrei erantzuteko duen gaitasuna eta prestutasuna ere.

d) Etxebizitzak zer higie, ekipamendu, bizigarritasun eta irisgarritasun baldintza dituen, eta ingurunean non kokatuta dagoen. Hori guztia kontuan izanda, laguntza teknikoaren beharrik dagoen.

e) Egoera ekonomikoa.

14.2. GIZARTE TXOSTENA-PROPOSAMENA.

Udal gizarte-zerbitzuetako gizarte laneko teknikariek arretarako banan-banako programa prestatuko dute edo, hala badagokio, Laguntza pertsonalizatua emateko programa. Horietan, honako hau zehaztuko da:

— Eskatzaileak zerbitzua erabiltzeko baldintzak eta eskaera aurkezteko baldintzak betetzen dituen.

— Hala badagokio, baldintzetan salbuespen-egoera onar dezaten arrazoitutako proposamena.

— Eskatzailearen egoera pertsonala eta familiako nahiz gizarteko egoera. Hala badagokio, elkarbizitza-unitatearen egoera.

— Esku-hartzearen onuradunak zein diren, zer zerbitzu mota jasoko duten, zerbitzua astean zenbat orduz eta egunez jasoko duten, eta proposatutako lanen eta zerbitzuaren iraupena zein izango den.

— Hala badagokio, baldintzetan salbuespenezko zerbitzuak egotea onar dezaten arrazoitutako proposamena.

— Hala badagokio, zerbitzua zergatik ezeztatu den arrazoitzen duen proposamena.

15. artikulua. Ebazpena

Eskabidea aztertua eta baloratua izan eta gizarte-txostena egin denean, dagokion proposamen teknikoa prestatuko da, dagokion organoari aurkezteko. Organo horrek, arrazoitutako ebazpenaz, onartu edo ezetsi egingo du zerbitzua erabiltzeko eskaera.

Ebazpena udal erregistroetakoren batean eskaera jasotzen denetik gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da. Epe hori eten egingo da eskaerak osatzea eskatzen denean, horren jakinarazpenaren eta betetzearen arteko denboran, edo, bestela, emandako epean zehar, edota eskaera egiten duenaren autonomiaren balorazioari buruz Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko txostena eskatu behar denean eta, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusten diren gainerako kasuetan.

Aurreko atalean aurreikusitako epea berariazko ebazpenik eman gabe eta ebazteko bete-beharraren kalterik gabe igarota, eskaera ezetsizat jo ahal izango da, interesatuari aukerako berraztertze-errekurtsoa edota administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzea ahalbidetzearen.

Eskaera onartzen duen ebazpenak honako hauek ere jaso beharko ditu:

- Hala badagokio, eskaera zerbitzuaren eskatzaile-zerrendan sartzea.
- Prestazioa ematea, honako hauek zehaztuta: iraupena, mota, intentsitatea eta zerbitzuaren kostua. Era berean, onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa.
- Ebazpen-proposamenak hau ere jasoko du: zerbitzu edo diru-prestazio baterako eskubidea aitortzeak eskatzailea eta, hala dagokionean, bere legezko ordezkaria edo izatezko zaintzailea behartu egiten duela eskudun organoari jakinaraztera eskubide horri eragin diezaiokeen bere egoerako edozein aldaketa, aldaketa gertatzen denetik 15 egun naturaleko epean.

Ebazpenean eskaerari uko egiten bazaio, horren arrazoiak adierazi beharko dira. Eskaera honako egoeraren bat gertatzen denean ezeztatuko da:

- 8. artikuluan jasotako sarbide-baldintzak ez betetzea.
- Eskaeran adierazitako beharrak eskatzaileak berak eta/edo familiako kideen laguntzaz eta/edo beste baliabide pertsonal batzuek bete ahal izatea.
- Laguntzaren ezaugarriak edo eskatzailearen bizitokia dela-eta, zerbitzu hori ematea beste administrazio publiko baten eskumena izatea.
- Zerbitzuak erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duen langilearentzat arrisku fisiko eta/edo psikikoak sor ditzakeela baloratzea.
- Behar bezala arrazoitutako beste zio batzuk.

Ebazpena legeak agintzen duen epean jakinaraziko da, dagozkion baldintzetan. Horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakiok dagokion organoari. Zuzenean ere egin daiteke administrazioarekiko auzien ordena juridikazkoan, legez ezarritako epean eta baldintzetan.

Onespeneko ebazpena zerbitzua ematen duen erakundeari ere jakinarazi beharko zaio. Erakunde horrek zerbitzua sinatutako kontratuan jasotzen den epean eman beharko du.

16. artikulua. Premiazko egoerak

Salbuespen gisa, eta beharra muturrekoa eta larria denean, udal gizarte-zerbitzuek prestazioa berehala ematen hastea proposa dezakete, eta larrialdiko prozeduraz izapidetuko da.

Gizarte-zerbitzuek, hala badagokio, zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko diote zerbitzuaren larritasuna, eta erakundeak gehienez 48 orduko epean eman beharko du.

Gero, egutegiko 15 eguneko epean, eskabidea ohiko prozedurari jarraituz izapidetuko da.

2. ATALA. Zerbitzuan onartu eta erabiltzea

17. artikulua. Zerbitzuan onartzea

Zerbitzua jasotzeko zerrendako ordenaren arabera erabakiko da. Horretarako, Araudiaren I. eranskinean ezarritako irizpideen arabera egindako eskaeren balorazioaren ondoren lortutako puntuazio globala hartuko da kontuan.

Puntuazio bera duten eskaeretan, lehentasuna mendekotasuna duten eta horren arriskuan diren pertsonen eskabideek izango dute (MDD 23 eta 24).

IV. KAPITULUA ZERBITZUA EGOKITZEA ETA ZERBITZUAREN JARRAIPENA

18. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa

Oinarrizko gizarte-zerbitzuek etengabeko jarraipena egingo dute, zerbitzua onuradunen beharrezari egokitzen zaien ikusteko. Hala, dagozkien aldaketak proposatuko dituzte eta, onuradunekin batera, proposatutako helburuak lortu diren ebaluatuko dituzte onuradunekin batera. Era berean, etxera bertara joateko aukera ere izango dute, hara joan beharra ikusiz gero, eta baita aldian behin etxerako laguntza ematen duten laguntzaileekin egoteko ere.

Ebaluazioak egin ahal izango dira aldian-aldian, dela onuradunak dela zerbitzua ematen duen erakundeak hala eskatuta. Zerbitzua ematen duen erakundeak eskaturik edo protokolo eta kontratuetan zehaztutako eran ere egin daitezke.

19. artikulua. Egokitzapen-aldia

Zerbitzuan sartu eta lehen hiru hilabeteetan, ulertuko da erabiltzaileak zerbitzuaren funtzionamendura eta ezaugarrietara egokitzeko aldian daudela. Gizarte-zerbitzuetako teknikariek edota zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalek une oro aipatuko dituzte sortzen diren arazoak, eta egokitzapen aproposa lortzeko beharrezko irtenbideak bilatuko dituzte.

Erabiltzailearekin batera irtenbideren bat aurkitzen saiatu arren zaila bada erabiltzailea zerbitzura edo zerbitzua erabiltzaileari egokitzea, edo ondorioztatzen bada zerbitzuak ez dituela pertsonaren beharrak asetzen, baloratu egingo da egoera eta proposamen bat egingo da, aldez aurretik oinarrizko gizarte-zerbitzuek txostena burututa.

Egindako proposamena erabiltzaileari helaraziko zaio, eta hark 15 egun izango ditu alegazioak egiteko.

Alegazioak aztertu eta gero, behin betiko proposamena aurkeztuko zaio organo eskudunari, zeinak ebazpen arrazoituaz ebatziko baitu. Pertsona zerbitzutik ateratzea erabakiz gero, beste aukera bat proposatuko da, halakorik badago.

V. KAPITULUA ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

20. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea**20.1. Zerbitzua aldi batez etetea.**

Dagokion espediente bideraturik, zerbitzua aldi batez etengo da eskumena duen organoak emandako ebazpenaz, aldez aurretik interesdunari entzun eta gero. Ebazpen hori erabiltzaileari eta, hala badagokio, zerbitzua eskaintzen duen erakundeari jakinaraziko zaie.

Etxerako Laguntza Zerbitzua honako arrazoi hauengatik etengo da:

- Erabiltzailea aldi baterako ospitaleratzten bada.
- Erabiltzailea aldi batean etxebizitzan ez badago, baliabide sozial eta soziosanitarioez baliatu beharrez.
- Azken zerbitzuaz geroztik, laurogeita hamar (90) egun baino epe motzagoetan etxetik kanpo bada. Aldi hori egoera berezietan luza daiteke. Erabiltzailea familiako kideen etxeetan txandakatuta bizi bada, aldi hori txanden epeen arabera luzatuko da.
- Erabiltzaileak 10. artikuluan jasotako betebeharren bat betetzen ez badu, ez-betetze hori zerbitzua eteteko arrazoi ez denean.
- 8. artikuluan ezarritako betekizunetakoren bat aldi batez galtzen badu.

Etxean aldi batez ez egoteagatik zerbitzua eteten denean, erabiltzaileek idatziz egoera horren berri eman behar dute gutxienez 7 egun lehenagotik, behar bezala arrazoitutako egoeretan izan ezik, halakoetan larrialdiagatik ezinezkoa denean aurrez abisatzeko epe hori betetzea.

Etixerako laguntza zerbitzuaren erabiltzaileek zerbitzua aldi batean erabiltzeari uzten badiote, ez da preziorik kobratuko etete hori jarraiko 7 egun natural baino gehiagokoa bada. Horretarako, erabiltzaileek egoera horren berri eman behar dute, idatziz eta gutxienez 7 egun aurretik, behar bezala arrazoitutako egoeretan izan ezik, halakoetan larrialdiagatik ezinezkoa denean aurrez abisatzeko epe hori betetzea. Zerbitzua erabili gabe jarraiko 7 egun natural baino gutxiago egon izan bada, orduan ordaindu egin beharko dute esleitutako prezio publikoa.

20.2. Zerbitzua iraungitzea.

Dagokion espediente bideratu eta gero, eskumena duen organoak ebazpena emango du eta zerbitzuko bajak ezarriko dira, alde aurretik interesatuari entzun eta gero. Ebazpen hori erabiltzaileari eta zerbitzua eskaintzen duen erakundeari jakinaraziko zaie.

Etixerako laguntza zerbitzua arrazoi hauengatik iraungiko da:

- Erabiltzaileak edo legezko haren ordezkariak idatziz uko egitea.
- Zerbitzua emateko ebazpenean aurreikusitako prestazio-epea amaitzea.
- Erabiltzailearen heriotza.
- Erabiltzailea beste udalerri batera lekualdatzeagatik, familiako kideen arteko txandakatzea kontuan hartu gabe.
- Onuraduna Etixerako Laguntza Zerbitzuarekin bateragarria ez den beste baliabide edo programa batean sartzea.
- Zerbitzua ematea sortu zuen beharra desagertzea.
- Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzea edo datu faltsuak ematea.
- Zerbitzuan sartzeko betekizunetako bat behin betiko galtzea.
- Zerbitzua ematen segitzeko eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea.
- 30 eguneko epean gizarte- eta ekonomia-egoera aldatu izanaren berri ez ematea.
- Aldi baterako zerbitzuaren etenaldia amaitu eta gero, etxera ez itzultzea.
- Zerbitzua ematen duten langileei fisikoki edo psikologikoki eraso egitea.
- Araudi honetan erabiltzaileentzat zehazten diren betebeharrak behin eta berriz ez betetzea (erreziboak epez kanpo ordaintzea, behin eta berriz ordaindu gabe izatea...).
- Erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duenarentzat arrisku fisikoak eta/edo psikikoak egotea. Horretarako, udal zerbitzu teknikoek alde aurreko balorazioa egin behar dute.
- Behar bezala arrazoitutako bestelako batzuk.

Zerbitzua iraungitzeko ebazpena eman eta gero, erabiltzaileak berriz ere zerbitzuan sartu nahi duela adierazten badu, beste eskaera bat egin beharko du, eta eskaera hori Araudi honetan zehaztutakoari jarraituz izapidetuko da.

Iraungitakoan erabiltzaileak zerbitzuaren ordainketa batzuk egin gabe baldin baditu, ordaintzeko eskatuko zaio zerbitzua berriz eman aurretik.

VI. KAPITULUA ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

21. artikulua. Etixerako Laguntza Zerbitzuaren prezio publikoa

Etixerako Laguntza Zerbitzuagatik erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa une bakoitzean indarrean den ordenantza fiskalean zehazten dena izango da.

Ez zerbitzua ematen duen langileak ez zerbitzua esleituta duen enpresak, ez dute aurreko paragrafoan adierazitako diruaz gainerako ezer ere onartuko, ez dohaintzarik ez ordainketa gehigarririk. Zerbitzua esleitua zaion enpresak zaindu behar du baldintza hori betetzea.

22. artikulua. Finantzazioa

Zerbitzuak honako hauen kargura finantzatuko dira:

Onuradunak zerbitzuaren finantzaketan parte hartu beharko du, eta dituen baliabide ekonomikoak kontuan harturik eskumena duen organoaren ebazpenean ezartzen den kopurua emateko sinatutako konpromisoa onartzen du, zerbitzua ematen hasteko nahitaezko baldintza gisa, eta dagokion ordenantza fiskalak horren gainean jasotzen duenari jarraituz.

Orduko ordaindu beharreko prezioari onuradunak, dagokion ordenantza fiskalean jasotzen den arabera kalkulatuta, orduko ordaindu beharreko ekarpenari kenduko zaion zenbatekoa Administrazio Publikoaren kargura izango da.

23. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena

Araudi honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileak zerbitzuaren prezio publikoa ordainduko du. Prezio hori bere gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta kalkulatu da, dagokion ordenantza fiskalean ezarritako baldintzetan.

Erabiltzailearen ekarpena dagokion ordenantza fiskalean jasotzen diren elementuen arabera ezarriko da.

Gaitasun ekonomikoari buruzko datuak faltsutu edota ezkutatzek zerbitzuaren eskaeraren artxibatzea ekarriko du, edo iraungitzea, jada emana baldin bazegoen, egintza horietatik etor litezkeen erantzukizunen kalterik gabe. Eskumena duen administrazioak erabiltzaileari prezioa ordaintzean laguntza edo hobariren bat eman badio, hori itzularazteko prozedura hasiko da.

Norberaren ekarpenaren baldintzetan edo egoeretan aldaketaren bat dagoenean, ekarpen hori berrikusi egingo da, ofizioz edo erabiltzaileak edo bere ordezkariak hala eskatuta, dagokion ordenantza fiskalak ezarritako baldintzetan.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Etixerako laguntza zerbitzuaren bitartez abian jarri ahal izango dira erabiltzailea bere etxebizitzan eta ingurunean jarraitzea laguntzen duten esperientzia/jarduera/prestazio berritzaile eta ez-ohikoak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudiaren laburpen bat prestatuko da erabiltzaileei emateko.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Gaian eskumena duen udal organoak irizpideak jasotzen dituen eskuliburu bat prestatuko du. Eskuliburua erabiltzaileen eskura egongo da, eta bertan jasoko da erabiltzaile bakoitzari zerbitzua zenbat denboraz emango zaion, betiere 6. artikulua 2. atalean ezartzen diren mugen barruan, eta hori aplikatuko dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko langileek.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi honetako arauekin kontraesaneari dauten maila bereko nahiz txikiagoko arau guztiak indargabetuta geratu dira.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau ALHAO-n argitaratu ondorengo hamabost egun igarota jarriko da indarrean.

I ERANSKINA

ZERBITZUA JASOTZEKO BAREMOA

Zerbitzuan jasotzeko baremoak eskatzaileen zerrendarako ordenamendu irizpideak ezartzen ditu eta zerbitzuan sartzeko lehentasuna, gizarte diagnostikoaren arabera.

Sartzeko baremoa zehazteari dagokionez, eskatutako zerbitzuak pertsona bati baino gehiagori eragiten badio, laguntza behar handiena duen pertsonaren egoera bakarrik baloratuko da, egoera ekonomikoaren dimentsioa zehaztean.

BAREMOAREN EGITURA

DIMENTSIOAK	PUNTUAZIO TARTEAK
Eguneroko jarduerak egiteko laguntzaren beharra (Oinarrizkoak)	0-30
Eguneroko jarduerak egiteko laguntzaren beharra (Instrumentalak)	0-10
Elkarbizitza eta gizarte sostenguko egoera	0-30
Etxebizitza edo bizitokiaren egoera	0-10
Egoera ekonomikoa	0-20
GUZTIRA	0-100

I. EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAREN BEHARRA (OINARRIZKOAK).

Pertsonek behar duten laguntza maila baloratzeko datza, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko garaian (jan, jantzi, norberaren garbiketa, besteak beste), Horrela, pertsona horiek duten autonomia maila mantentzea eta sustatzea da helburua, eta bizi kalitate onarekin bizitzea beren ingurunean.

Balorazio hori egiteko, Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan (MBB) lortutako emaitza oinarri izango da, honakoari dagokionez:

LAGUNTZAREN BEHARRA ZEHAZTEKO BAREMOA	PUNTUAK	
Baloratu ezinak	0	☐
MBB 0-22 puntu	5	☐
MBB 23-49 puntu	10	☐
MBB 50-74 puntu	20	☐
MBB 75-100 puntu	30	☐
EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRARI DAGOKION PUNTUAZIOA (OINARRIZKOAK) (Gehienez 30 puntu)		☐

II. EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAREN BEHARRA (INSTRUMENTALAK).

Pertsonek behar duten laguntza maila baloratzeko datza, jarduera instrumentalak egiterako garaian (etxetresna elektrikoak, erosketak, eta abar). Horrela, pertsona horiek duten autonomia maila mantentzea eta sustatzea da helburua, eta bizi kalitate onarekin bizitzea beren ingurunean.

Balorazio hori egiteko, hurrengo baremoa erabiliko da:

JARDUERA INSTRUMENTALAK - BAREMOA	PUNTUAK	
Etxeko tresnak (garbigailua, mikrouhina, sukaldea, berogailua...) eta komunikabideak erabiltzea (irratia, telefonoa, telebista)	BAI: 0	☐
	EZ: 1	☐
Etxeko lanak (hautsa kendu, erratza pasatu, harrikoa egin, ohea atondu, izarak aldatu, aspiragailua, plantxa,...)	BAI: 0	☐
	EZ: 1	☐
Erosketak (elikagaiak, medikazioa, arropa, etxeko tresnak eta abar erosi)	BAI: 0	☐
	EZ: 1	☐
Elikagaiak prestatzea (otorduak prestatu, aldeztu aurretik prestatuta dauden jakiak berotu)	BAI: 0	☐
	EZ: 1	☐

JARDUERA INSTRUMENTALAK - BAREMOA	PUNTUAK	
Ingurunean arazorik gabe ibiltzea (garraio publikoa erabili, udalerrri barruan egunez zein gauez galdu gabe ibili)	BAI: 0	☐
	EZ: 3	☐
Kudeaketa ekonomiko-administratiboak eta medikoak (dirua atera, ordainagiriekin moldatu, medikuarenera joan...)	BAI: 0	☐
	EZ: 3	☐
EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAREN BEHARRARI DAGOKION PUNTUAZIOA (INSTRUMENTALAK) (Gehienez 10 puntu)		☐

III. EIKARBIZITZA ETA GIZARTE SOSTENGUKO EGOERA.

Beharrak betetzeko pertsonak duen laguntza maila ezagutzea da helburua, honako aldagai hauek irizpidetzat hartuta:

- Elkarbizitza egoera: Bakarrik ala norbaitekin bizi den. Beste adindunekin bizi den (senitartekoak edo lagunak), edo beste senitarteko edo lagunekin.
- Sare informalik duen ala ez, eta, baldin badago, sare horrek laguntza emateko eta hurbiltzeko dituen aukerak (senitarteko eta / edo lagunak), eta zer laguntza mota ematen duen.

Balorazio hori egiteko, hurrengo baremoa erabiliko da:

BAREMO SOZIO-FAMILIARRA	PUNTUAK	
1.- Bakarrik edo lagunduta bizi den pertsona, edo baztertuta dauden adingabeak: tratu txar fisiko edo psikikoak jasotzen dituztenak, abusu ekonomikoa jasaten dutenak, oinarritzko arreta falta edo bazterketa-egoeran daudenak	30	☐
2.- Bakarrik edo lagunduta bizi den pertsona, familiaren edota gizartearen babesik gabe: seniderik ez duelako, edo ohiko zaintzaileak ezin diolako eman beharreko arreta arazo objektibo batengatik, edo familian arazoak edota senideekin hauste larria izateagatik. / Familiak arriskupean dauden adingabeekin	25	☐
3.- Bakarrik bizi den pertsona, familiaren edota gizartearen gutxieneko babesa duena baina bere beharrak asetzeko nahikoak ez direnak. / Gehiegizko zamak edo egoera sozial ezegonkorak dituzten familiak	15	☐
4.- Bakarrik bizi den pertsona (edo mendekotasun/desgaitasunen bat duen pertsona batek lagunduta), familia edo gizartearen babesa dauka zenbait laguntza ematen diotelako, baina behar duen arretarako ez da nahikoa	10	☐
5.- Bakarrik bizi den pertsona (mendekotasunen bat ez duen pertsona batek lagunduta), familia edo gizartearen babesa dauka, baina behar duen arretarako ez da nahikoa	5	☐
6.- Bakarrik edo lagunduta bizi den pertsona eta familia edota gizartearen babesa dauka, erraz eskuragarria	0	☐
EGOERA SOZIO-FAMILIARRARI DAGOKION PUNTUAZIOA (Gehienez 30 puntu)		☐

IV. ETXEBIZITZA EDO BIZITOKIAREN EGOERA.

Etxebizitzaren edo bizitokiaren ezaugarriak balioztatzean datza; izan ere, hauei eragin diezaioke: Era autonomoan moldatzeari, ingurunearen kontrolari, aukeratzeko ahalmenari, baita laguntza eta/edo sostengua jasotzeko aukera ere.

Aintzat hartzeko aldagaiak dira iristen erraza izatea, bizitzeko egokia izatea eta ekipamendua, honako baremoaren arabera:

ETXEBIZITZA EDO BIZITOKIAREN EGOERARAKO BAREMOA			
IRISGARRITASUNA		PUNTUAK	
A. Eraikinen kanpoaldea	– Ez dago arazorik eraikinean sartu ahal izateko	0	☐
	– Etxebizitzara heltzeko eskailerak igo eta jaitsi behar dira edo hesi arkitektonikoren bat zeharkatu behar da // Herri-erdigunetik aldenduta dago eta oinarritzko baliabideak eskuratzeko zailtasunak daude	1	☐
B. Eraikinen barrualdea	– Ez dago arazorik eraikinean sartu ahal izateko	0	☐
	– Igogailu edo etxebizitzara heltzeko atarian eskailerak daude, ezin direnak saihestu. // Eraikinak ez dauka igogailurik	1	☐
C. Etxebizitzaren barrualdea	– Ez dago inolako hesi arkitektonikorik	0	☐
	– Badaude hesi arkitektonikoak etxean arazorik gabe ibili eta mugitzea eragozten dutenak, ez dauka segurtasun- edota egokitze-neuririk	2	☐
IRISGARRITASUNA, GUZTIRA (A+B+C)			☐

BIZIGARRITASUNA	PUNTUAK	
– Ez dauka arazorik etxebizitzan bizitzeko	0	☐
– Mantentze egokia behar du	1	☐
– Egitura arloko arazoak ditu (hezetasuna, ez dago komunik, sukalderik; ez dago espazio nahikorik; itoginak; ur- eta elektrizitate-instalazio eskasak)	3	☐
BIZIGARRITASUNA, GUZTIRA		☐

EKIPAMENDUA	PUNTUAK	
	BADAGO	BADABIL
Sukaldea	☐	☐
Berogailua/termoa/galdara	☐	☐
Berokuntza-sistema	☐	☐
Garbigailua	☐	☐
Hozkailua	☐	☐
Telefonia	☐	☐
– Etxebizitza baten ekipamendurako oinarritzakoak diren elementu guztiak ditu eta ibiltzeko egoera onean daude	0	☐
– Gutxienez 4 elementu ditu, edo elementu guztiak ditu eta baten bat ez dabil, baina konpondu daiteke	1	☐
– Ekipamendurako oinarritzakoak diren 4 elementu baino gutxiago ditu edota baten bat ez dabil eta ezin da konpondu edo erabiltzeak berak ezin du beste batekin ordeztu.	3	☐
EKIPAMENDUA GUZTIRA		☐
ETXEBIZITZA EGOERARI DAGOKION PUNTUAZIOA (Gehienez 10 puntu)		☐

V. EGOERA EKONOMIKOA.

Egoera ekonomikoa baloratzeko, Ordenantza Fiskalean ezartzen diren baldintzekin bat, familiak hilean jasotzen duten aurreikusitako diru-kopurua kontuan hartuko da. Lanbide arteko Gutxieneako Soldataren (LGS) ehuneko 181,70tik behera (1.500,00 euro), 11 tarte zehaztuko dira arian-arian puntuatuko direnak:

FAMILIAREN HILEKO EGOERA EKONOMIKORAKO BAREMOA	PUNTUAK	
LGSren ehuneko 60,57raino	20	☐
LGSren ehuneko 60,58–72,68	19	☐
LGSren ehuneko 72,69–84,79	18	☐
LGSren ehuneko 84,80–96,91	16	☐
LGSren ehuneko 96,92–109,02	14	☐
LGSren ehuneko 109,03–121,13	12	☐
LGSren ehuneko 121,14–132,25	10	☐
LGSren ehuneko 132,26–145,36	8	☐
LGSren ehuneko 145,37–157,47	6	☐
LGSren ehuneko 157,48–169,59	4	☐
LGSren ehuneko 169,60–181,69	2	☐
LGSren ehuneko $\geq 181,70$	0	☐
EGOERA EKONOMIKOARI DAGOKION PUNTUAZIOA (Gehienez 20 puntu)		☐

Ondategin, 2025eko abenduaren 4an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA